

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

**HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK**

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Gobernuak Memoriaren Tokiak arautu eta horietan gertatutakoa ondorengo belaunaldiei transmititzeko lana erraztuko du

Foru Exekutiboak Nafarroako Memoria Historikoaren Tokiei buruzko Foru Lege proiektua onartu du gaurko bileran

Asteazkena, 2018.eko urriak 17

Foru Gobernuak Nafarroako Memoria Historikoaren Tokiei buruzko Foru Lege proiektua onartu du gaurko bileran, horrelako tokiak izendatu, babestu, kontserbatu eta ezagutzera emateko, eta horrela, memoriaren transmisiorako esparrutzat baliatuz, bake eta bizikidetzaren aldeko kultura sustatzen laguntzeko, tolerantziaren eta Giza Eskubideen errespetuaren balioei loturik.

Proiektu honen bitartez, Exekutiboak toki horiek babestu, seinaleztapena eta kontserbazioa arautu eta horien ezagutza sustatu nahi du, antzinako leku izugarri horiek oroimenaren babesleku eta bake eta bizikidetzaren balioen transmisiorako esparru bihurtzeko xedez.

Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako kontseilari Ana Ollok Gobernuaren bileraren ondoko prentsaurrekoan azaldu duenez, bizikidetzaren helburu nagusietakoa izanik, “memoriak protagonismo osoko eginkizuna bete behar du”. Testuinguru honetan, “memoriaren tokiei buruzko lana Memoria Historikoaren arloko lan-ildoetako bat izan da” gaineratu du. Lege proiektu hau, haren esanetan, “beste urrats bat baizik ez da, Gobernu honek memoriaren nahiz 1936ko kolpe militarren ondoko bidegabeko indarkeria jasan zutenekiko oroimenaren alde hartu duen konpromisoaren barnean”.

Lege honek areago finkatuko du Nafarroaren erreferentzialtasuna gai honi dagokionez, joan den martxoan 13 autonomia-erkidegoren parte-hartzeaz Nafarroan antolatu zen Memoria Historikoaren Autonomia-arte Sarearen I. Topaketan argi geratu zenez.

Luze gabe Nafarroako Parlamentura igorriko den arau honen testua parte-hartze bidezko prozesu baten bitartez landu da, erakunde, gizarte-eragile nahiz herritarren inplikazioarekin.

Memoriaren Tokiak

Foru Lege proiektuaren arabera, Memoriaren Tokia izanen da Nafarroan finkatu eta aintzat aldarrikatu eta erregistratutako esparru fisikoa, memoriaren ondare historikotzat Foru Komunitatearen interesekoa dena, 1936ko kolpe militarren ondorioz eta gerokoko errepresio frankistan zehar herritarrei eragindako errepresio eta indarkeriazko gertakari garrantzitsuekin loturikoa.

Hortaz, halakotzat aldarrikatu ahalko dira 1936ko kolpe militarren ondoren fusilatu edo desagertutako pertsonen banakako zein taldekako hilobiak eta ehorzketa-lekuak; indarkeria eta errepresio frankista jasan zuten pertsonak atxilotzeko eta hiltzeko erabili zituzten tokiak; frankismoan preso hartutako pertsonen bortxazko lanaz eraikitako obra publikoak, eta geroztik, frankismoaren biktimen oroimen, errekonozimendu nahiz erreparaziorako esparrutzat sortutako memoriaren lekuak.

Belaunaldien arteko transmisioa

Toki horiek eta horietan gertatutakoa bildu eta Memoria duten Eskolak programan txertatzea da arau berri honen berritasun nagusietako bat. Horrekin batera, Administrazioak memoria historikorako sarbidea erraztuko du Informazio eta Komunikazio Teknologien laguntzaz, eta hauexen bitartez emango du ezagutzera Nafarroako memoriaren tokiei buruzko informazio guzti-guztia. Honek esan nahi du, memoriaren ondare historikoaren ikuspegitik garrantzi handikotzat jotzen diren tokien kasuan, bisita birtualak egiteko aukera izanen dela.

Edukia

Nafarroako Memoria Historikoaren Tokiei buruzko Foru Lege proiektuak bost titulutan banatutako 25 artikulua ditu.

Berritasunen artean, **II. Tituluak** Memoriaren Toki izendatzeko eta toki horien erregistroa sortzeko prozedurak zehaztu ditu.

III. Tituluak tokien babesa eta kontserbazioa ditu ardatz, eta **IV. Tituluan** horiek zabaltzeko eta ezagutzera emateko lanak zehaztu dira. Nafarroako memoria historikoaren tokiak bildu eta Memoria duten Eskolak programan txertatuko dira, irakaskuntza-maila guztietan. Gainera, memoriarako sarbidea erraztuko da teknologiaren bitartez.

Azkenik, **V. Tituluan** Zigor Araubidea zehaztu da. Hartara, Foru Lege honetan ezarritako betebeharrak haustea dakartzan ekintzak edo ekintzarik ezak titulu honetan jasotakoaren arabera zigortuko dira.